

José Miguel Azaolaren (1917-2007) begiradak eta ebaluaketak Euskal Herriko iraganaz eta historiografiaz.

**Las miradas y evaluaciones de José Miguel Azaola
(1917-2007) sobre el pasado y la historiografía de
los vascos.**

**Les vues et les évaluations de José Miguel Azaola
(1917-2007) sur le passé et l'historiographie des
Basques.**

Agirreazkuenaga Zigorraga, Joseba.¹
UPV/EHU

Recep.: 2017.09.01

BIBLID [1136-6834, eISSN 2386-5539 (2017), 41; 161-181]

Acep.: 2017.10.31

Azaolaren ibilbide intelektuala frankismoak sortu zuen Estatu berriak moztu egin zuen. 1962 arte Euskal Herrian eta Espainian garatu zituen bere kezka kulturalak. 1970etik Parisetik, Unesco lanean ari zela, erregionalismo politiko eta ekonomikoaz arduratu zen. "Vasconia y su destino" (3 liburuki) eta El País Vasco liburuetan euskaldunen iraganari buruz eta euskaldunen historiari adierazten duena aztertzen da.

Hitz gakoak: Azaola, euskaldunak, historiografía, frankismoa.

La trayectoria intelectual y vital de Azaola quedó truncada por el nuevo Estado franquista. Hasta 1962 desarrolló sus inquietudes culturales en el País Vasco y en España. A partir de 1970 desde Unesco París teorizó sobre el regionalismo económico político y cultural. Se analiza el pensamiento e interpretación sobre el pasado y la historiografía de los vascos en dos obras: "Vasconia y su destino" (3 volúmenes) y El País Vasco.

Palabras clave: Azaola, vascos, historiografía, franquismo.

La trajectoire intellectuelle et vitale d'Azaola a été tronquée par le nouvel état franquiste. Jusqu'en 1962, il développe ses préoccupations culturelles au Pays Basque et en Espagne. À partir de 1970, à Paris (Unesco) a théorisé le régionalisme économique politique et culturel. Il a élaboré une pensée et une interprétation sur le passé et les histoires des Basques: "Vasconia y su destino" (3 vol.) et El País Vasco.

Mots-clés : Azaola, Basques, historiographie, franquisme.

1. UPV-EHUko Katedraduna. Historia garaikideko saila. joseba.agirreazkuenaga@ehu.eus.
Artikulu honek bere abiapuntua Unesco Etxeak antolatutako Jardunaldian du. Ruper Ormazaren ardurapean, "Unescoko bi euskal humanista-Dos vascos humanistas en la Unesco" maiatzaren 24 eta 25ean Bilboko Bidebarrieta Kulturgunean eratu ziren hitzaldiak eta bertan aurkeztu nuen hitzaldia oinarri harturik, euskal historiografiazko azterketa da bereziki honako hau.
Eskerrak Xabier Zabaltzari, egindako zuzenketek testua hobetu dutelako.

1. SARRERA

Juan Antonio Zamacolak *Historia de las naciones vascas* (1818) idatzi zuen, Frantziako erbestean bizi zela.² Eta erbestean izanik euskaldunen arteko bateratasuna nabarmenago agiri dela eta ondorioz, euskaldun guztiak bihurtzen dira aztergai, bere osotasunean. Aldiz, Batzar Nagusien eraketaren ondorioz, bertakotasunetik abiatuz, herrialde bakoitzeko historiak idatzi ohi dira. Bazirudien iraganean ez zegoela euskaldunen kontakizunen batasunik. Hala ere, 1764an Bascongada izeneko Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen jadanik, ahalegindu zen euskaldunen historia berria idazten. XIX mendean barrena joera hori areagotu egin ohi zen, bereziki iragana kontakizun legenda eta ipuin berritzaileez horniturik, ez horrenbeste historiaz. Mende amaieran A. Campion eta C. Echeagaray saiatu ziren iraganaren interpretazio zehatzagoa burutzen historia berritzaileen bidez. Hala ere euskaldunen historia bazterreko kontakizuna bihurturik zegoen, historia nazionaletan asmatu zen iraganaren ikuspegiari, Estatu-Nazio berriaren batasun espainol edo frantsesa azpimarratzen zen eta bestelakoak herrien historiak kontakizun espainol edo frantsesaren menpe gelditzen ziren.

Eusko Ikaskuntzaren sorreraren ondoren 1918an, euskaldunen iraganaren azterketa historikoa bere horretan indarra hartu zuen. Historia egiteko modu berrian burutu behar zen. Alde batetik, Salamancako katedraduna zen Anjel Apraizek, hitzaldi nagusia egin zuen eta bertan galdera nagusi bati erantzuteko premia egin zuen: Zein izan da euskaldunen ekarpena kultura unibertsalera? Horra iragana aztertzeke historia berrirako galdera berria burutu zuen eta hortik abiatuko behar zen etorkizuneko ikerketa lerroa.

Lehen historiaren arloan Telesforo Aranzadi eta Jose Migel Barandiaranek Europar barrena burutzen ari ziren ikerketen metodologia eta teoriak aintzat harturik Euskal Herrian bizi zen lehen gizakiari buruzko ikerketak egiten ari ziren. Baina 1933an jadanik, T. Aranzadik zera azpimarratu nahi izan zuen: euskaldunak ez dira gizaki primitiboak. Primitibismoaren teoria alde batera utzi beharra zegoen.³ Baina hala ere J.M. Barandiaranen kezka berezia zen, antzinateko ohiturak eta aztarnak euskal gizartean zenbateraino irauten zuten aztertzea nahi zuen. Eta horrela badirudi ezinbesteko lotura dagoela lehen historiako gizaki eta gaur eguneko euskaldunen artean, azken mendeen barreneko historiari gehiegi erreparatu gabe.

2. Zamacola José Antonio, *Historia de las naciones Bascas de una y otra parte del Pirineo septentrional y costas del mar Cantábrico desde sus primeros pobladores hasta nuestros días. Con la descripción, carácter, fueros, usos, costumbres y leyes de cada uno de los estados Bascos que hoy existen*. Auch: Viuda de Duprat, 1818, 3 liburuki.

3. Aranzadi Telesforo, "Preambulo" Barandiaran Jose Migel, *Breve historia del hombre primitivo*. tVitoria: Imp. Montepio Diocesano, 1933,

Baina erakundeen historian barrena, bereziki, foruen bidezko erakundetzeaz Carmelo Echegaray, Arturo Campion⁴ eta bereziki Bonifacio Echegarayrek idatzi zuten. B. Echegarayk “Vasconia” izeneko sarrera idatzi zuen *Entziklopedia Unibertsalean*. Euskal Herriari buruzko lehen laburpen eguneratua bihurtu zen 1929an eta aurrerantzean euskal historiaren ezinbesteko erreferentea.⁵

1933an Th. Lefebvrek berebiziko liburu garrantzitsua argitaratu zuen, *Les modes de vie dans les Pyrenées Atlantiques orientales*.⁶ Euskal Herriko azken 500 urteetako zibilizazio materiala zehaztasunez aztertu eta azaldu zuen, demografia eta populazioaren azterketak gehi ingurugiro naturalaren azterketa. Ondoren 1949an, Julio Caro Barojak, *Los Vascos* liburuan bereziki azken 1.000 urteetako laburpena argitaratu zuen erromatarren eragina azpimarratuz.⁷

Baina 1970ean, oraindik orain, Euskal Herriko historiari buruzko ikerlanak urriak ziren. Ez zeuden akademia unibertsitarioan erroturik. Eta giro horretan, J. Azaolaren lana kokatu behar dugu.

2. J.M. AZAOLAREN LIBURUAK EUSKAL HERRIARI BURUZ

J. M. Azaolaren hiru liburukiak oinarritzat harturik abiatuko gara gure azterketa honetan. 1972an argitaratu zuen lehena, Espainiako deszentralizazio erregionalaren arazoa aztertzen du eta 1976an beste bi liburukiak, Euskal Herria zehatzago aztergai hartzen zuelarik. Liburuak *Revista de Occidente* aldizkariaren argitaletxean argitaratu ziren, frankismoaren garai zail eta itxian, zabaltasunaren alde jokatu zuen aldizkaria eta argitaletxea zena. Lehen liburukia 1972an, *Vasconia y su destino. La Regionalización de España* izenpean. Azaolak azterketa eta liburuak helburu batez argitaratu zituen, erregionalismoa eta Estatu agintearen banaketa sustatzeko. Agintearen kudeaketa banatzea

4. Majuelo Emilio, *La idea de historia en Arturo Campion*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2011

5. Echegaray, Bonifacio “Vasconia” in *Enciclopedia Universal ilustrada Europeo-Americana*. Madrid: Espasa-Calpe, 1929, 148-169.

-*La Vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1933.

-*La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1923.

6. “Enfin, comme l’objet de ce livre était, non de retracer l’histoire de l’activité humaine, mais d’étudier les modes de vie sous leurs aspects actuels, c’est toujours le présent qui a été le point de départ de mes recherches. Sans doute, pour l’expliquer, ai-je été obligé de plonger dans le passé, mais, préoccupé de le subordonner au présent, je ne l’ai jamais étudié pour lui-même.” Theodore Lefebvre, *Les modes de vie dans les Pyrénées Atlantiques orientales*. Paris: Armard Colin, 1933.

7. Caro Baroja Julio, *Los Vascos. Etnología*. San Sebastián: RSVAP, 1949. Agirreazkuenaga Joseba, “Julio Caro Baroja, Maestro in Social History and Non-Conformist Intellectual (Madrid, 13-XI-1914—Bera de Bidasoa, 18-VIII-1995)” *History Workshop Journal*, nº 42, Oxford: Oxford University Press, 1996, 195-206.

onuragarria dela frogatu nahi zuen, erabateko zentralizazioa ez zelako onuragarria arazo publikoak bideratzeko. Baina bestalde, euskaldunak bere etorkizuna pentsatzeko eta planifikatzeko gai ez zirela salatzen zuen eta horregatik aginte batzuen premia euskaldunen eskuetan uztea aldarrikatzen zuen, etorkizun oparoa lortzeko. Beraz 1972an argitaraturiko liburuan helburua azaltzen du: “Esta obra es hija de una preocupación, vieja ya en el autor, nacida al comprobar la escasez dramática de medios adecuados para resolver la mayor parte de los problemas que en orden a la configuración del futuro se plantean en el país vasco.” Eta aurrerago, zehazten du gabezia “pequeñez de los instrumentos de que los vascos disponemos para resolverlas”.⁸ Beste era batera, euskaldunek bere etorkizuna lantzeko eta burutzeko aginterako eskumenak behar zituzten. Baina definizioz, frankismoak asmatu zuen Estatu espainiar berria, erabat zentralizaturik zituen aginte guztiak. Beraz, indarrean zegoen frankismoak ezarritako legeen baitan egiten zuen gogoeta eta proposamena. Eta proposamen horren oinarri teorikoa sustatzeko, iraganaren irakurketa historiko zehatz batera jotzen du, iraganak ikuspegi tradizionalistan bere onespena zuelako.

Horra bada, Foruen bidezko aginteak eta erakundeak, Batzar Nagusiak eta bertan izendaturiko gobernuak, hots Foru Aldundiak, Espainiako Gobernuak 1877an ezabatu zituen. 1936an Eusko Jaurlaritzaren esperientzia salbuespen moduan harturik, euskaldunen aginte publikoaren kudeaketa nagusia, Espainiako gobernuaren esku zegoen. Zerga eta finantza arloan aldiz, 1937 arte Kontzertu Ekonomikoaren bidez aginte fiskal eta finantziarioa Diputazioen esku zegoen, baina frankismoak desegin ondoren, Bizkaian eta Gipuzkoan, erabateko zentralizazioa gertatu zen 1937tik.

Liburu hauek argitaratu baino lehen, bere ideia erregionalistaren oinarriak nolabait azalduz zeuden aurreko beste argitalpen batean. 1951ean *Arbor* aldizkarian argitaratu zuen artikulua dugu aurrekari zuzena: “*Carta de las Regiones: Vasconia*”.⁹ Hogei urte beranduago, Bilbon, 1971, II Semana de Antropología Vascako ekitaldietan beste ekarpen bat egin zuen, beti ere bere ikuspegiari ekintzabiderako proposamen zehatzak aurrekusiz: “*El quehacer cultural de los vascos de nuestro tiempo*”.¹⁰

Bi artikulua hauetan eta bereziki lehendabizikoan idatzi zuena aintzat hartu behar dugu baina bereziki 1951n argitaratu zuena, Francoren diktadura gogorren lehen garaikoa dugulako, estatu totalitarioaren antolaketa nazional-katolizismoaren lemapean, erabatekoa zen unekoa alegia. Helduaroan sartzen ari

8. Azaola, J.M. *Vasconia y su destino. La Regionalización de España*. Madrid: Revista de Occidente, 1972, 17 orr. Beranduago beste bi tomo gehitu zituen. Azaola José Miguel, *Vasconia y su destino. Los vascos ayer y hoy*. Madrid: Revista de Occidente, 1976, bi liburuki.

9. Azaola J. M. “*Carta de las Regiones: Vasconia*”, *Arbor*, 1951, 118 orr.

10. Azaola J.M. “*El quehacer cultural de los vascos de nuestro tiempo*”. *Estudios de Deusto*, Vol. 20, 45 Bilbao: 1972, 59-84. II Euskal Antropologia asteko hitzaldia.

zela idatzi zuen, Donostiatik, frankismoaren une gogor batean eta ekonomikoki isolaturik autarkiaren garaian.

Vasconia y su destino liburuaren aurrekaria aipatu ondoren, liburuak badu ondorengo bat, 1988an argitaratu zuen *El País Vasco*, liburua.¹¹ Beraz honako honetan liburu hauetan agiri dena hartuko dugu gaitzat, Euskal Herriari buruz landu zuena bertan agiri delako. Bitartean beste artikulua eta ekarpenak egiten jarraitu zituen baina 1988koan laburbildurik aurkitzen dugu bere pentsamendu politiko eta historiografikoa.

Liburuaren zergatietan sartu aurretik, zirkunstantziak asko markatzen dituela bere gogoetak, aintzat hartu behar dugu. Liburuak objektibotasun neutral batean oinarritu nahi ditu baina hala ere, bere zirkunstantziak eta ikuspegi subjektiboak ere, bere sakoneko usteak azalaraztea, ezinbestekotzat eta premiazkoa dela deritzogu. Eta horietako batzuk azaltzen ahaleginduko naiz, argigarriak izango direlakoan bere ikuspegia eta interpretazio historikoak alegia, zuzenago ulertzeko eta baloratzeko.

3. BIZITZAREN ZERTZELADAK

Azaola 1917an jaio zen eta bere lehen 26 urteak, Bilbon eta uda giroan Getxon bizi izan zituen.¹² Baina Bilbotarren iraganaz liberalek asmatu-riko kontakizunean oinarritu zen eta bere historia pertsonala liberal horiekin bat egingo du, bereziki monarkismoen ildokoekin. 1936ko gerra bere belaunaldiarentzat giltzarria izan zen. 1936ko uztailaren 17an beste bi lagunekin bidaiari joan ziren Europako erdialderantz, kontzertuak entzuterara, Bayreuth eta Salzburgora eta gero Berlineko olinpiadetara eta bidaiari jakin zuen militar batzuk indarrean zegoen demokrazia liberala eta konstituzio errepublikanoaren aurka altxatu zirela. Errebeldeak Austriar eta Alemanian ezarritako totalitarismoarekin lerrotu ziren, leialtasunak txikituz eta aurkariaren txikizioa planifikatuz. Eta besteak beste, Euskaldunek eskarmentu on bat merezi zuten, Molaren iritzian. Nagusitza lortzeko, beldurra eta ikara populazioaren aurka bizitu behar zuten. Erbestean iraun zuen hariak eta Bilbon karlistak eta frankistak sartu arte. Ondoren Bilbon aurkeztu zen, soldadu joateko adinean zegoelako, 20 urte eta beraz errebeldeen armada, Francoren armadaren, Terueleko frontera bidali zuten. Gaixotu egin zen eta Iruñeko ospitalean igaro zuen gerraren esperientzia latza.¹³ Adis-

11. Azaola José Miguel, *El País Vasco*. Madrid: Instituto de Estudios Económicos, 1988

12. Artxibo pertsonaleko agiriak: Fundación Sancho el Sabio. Vitoria-Gasteiz.

J. M. Azaolaren biografia osoa ezagutzeko, ikus, Juan Aguirre, *José Miguel de Azaola Urigüen*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2007

Ugarte Anton, *Jose Miguel Azaola Urigüen: Bilboko liberal euskaltzalea (1917-2017)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jauriaritza, bidegileak, 2013

13. Aguirre Juan, *op.cit.*, 21 orr.

kideak galdu zituen gerratean. Baina gerra ondoren diktaduraren garaian bere familiako tradizio politiko monarkikokoa izanik, irabazleen multzoan kokatu behar dugu.

Hala ere irabazleak, hauetariko asko liberal monarkikoen multzokoak, 1936ko hauteskundetan, bereziki Bilbo aldean, gutxiengoan ziren politikoki. J. M. Azaolak 1971n *Vasconia y su destino* lehen liburukiaren eranskinean 1933 eta 1936ko, Francoren diktaduraren aurreko azken hauteskunde demokratikoen emaitzak erakusten zituen eta iruzkin laburra egin ere. Bertan adierazten dira 1933 eta 1936an Hego Euskal Herri osoan hiru erpin nagusitan banaturik zegoela iritzi publikoa eta politikoa, hauteskunde bidez adierazita: *Bloque de Derechas* edo eskumatarrak, tartean Comunion Tradicionalista-karlistak, monarkikoak, Renovación Española, acción popularrekoak eta katoliko independenteak, guztira 1936ko hauteskundeetan, %42,2. Eusko Alderdi Jeltzalea eta katoliko independenteak %28 eta Frente popularra, 29,8. Bizkaira mugatu ezkerko eskumatarren eragina %25,5 jaisten da, Eusko Alderdi Jeltzalea, %37,3 eta Frente Popularra ezkertiarak, %37,2. Eta Bilbo aldean eskumaren emaitzak Bizkaikoak baino urriagoak ziren. Berak argitaraturiko zifrak dira. Hori zen, 1936ko Euskal Herri politikoaren argazki zehatza. Karlistek bereziki eta eskumatar gehienek, militar kolpisten alde egin zuten 1936an, Mola eta Francoren gidaritzapean gobernu demokratiko liberalaren aurka.

Bere guraso eta ingurukoak, eskumatar monarkiazaleen multzoan kokatu behar dira edo katoliko independenteen artean eta bere burua azken hauen artean zegoela esango genuke, nahiz eta bera bere subjektibitateaz hitz egiteko orduan, isila agertu. Frantziako katolizismo liberalean inspiratzen zen, Emmanuel Mounier edo Paul Ricoeur pentsalariaren pertsonalismoaren ildoan eta frankismoaren garaian 1947tik Frantziako Esprit aldizkariaren ildoan eta katoliko liberalen ildoan kokatzen zuen bere burua. Gregorio San Juanen iritzian, honela labur daiteke Azaolaren pentsamendu politikoa:¹⁴ “liberalismo fundamental; cristianismo personalista; europeísmo activo; y federalismo, como superación de la antítesis universalidad-particularidad y, en consecuencia, denuncia permanente de las contradicciones de los nacionalismos.”

Gerra aurretik eta gerora Bilboko Alea kultur taldearen eragile izan zen, kultur talde zabala. Baina 1942an ezkondu eta gero Donostiara joan zen eta aipatu bezala katolikoen ikuspegitik gogoetak eragin zituen Donostian eta giro horretan argitalpenak egiten ditu. Aurrerantzean, bere gogoeta eta saiakerazko artikulua eta liburuak, landu zituen, honako gai hauek zituela helburu: filosofia pertsonalista katolikoen baitan, Europaren bateratasuna, federalismoa eta Euskal Herria. Hala ere azpimarratu behar, Europari buruz kezka adierazten zuenak, 1945etik erakusten zuen gogoko zuela Europa berriko demokrazia

14. Gregorio San Juan, “Encuentro en torno a la obra de José Miguel Azaola” *Bidebarrieta*, 5, Bilbao: Bidebarrieta Kulturgunea, 1999, 226

liberalaren sistema. Beraz, demokraziaren aldeko metaforatzat hartu behar dugu bere izkribuetan Europa. Europar batasunaren aldekoa izan zen, Europar batasunaren aldeko liburu klasikoak itzuli egin zituen gaztelerara. Beraz bere lekua intelektualki irabazten hasi zen. Iparraldean zeuden euskaltzale erbeste-teratuekin ere harremanak landu nahi zituen. 1948an Eusko Ikaskuntzen 7garren Kongresua Biarritzen antolatu zenean 1948an, J.M. Barandianek gonbidatu egin zuen eta J. M. Azaolak erantzun¹⁵ *“si el acontecimiento tiene un carácter estricto y seriamente científico, si no sirve de coyuntura para manifestaciones de tipo político que contribuyan a embrollar los problemas de este nuestro sufrido pueblo, cuenten ustedes desde luego con mi cordial y amistosa adhesión. Y, si en algo puedo servirles, estoy a sus órdenes”*. Azkenean hegoaldekoek ez zuten lortu baimenik Biarritzeko Kongresuan parte hartzeko.

4. EUROPA, FEDERALISMOA ETA AUTONOMIAREN ALDEKOA

Gazterik Richard Coudenhove Kalergiren ikuspegi paneuropeistaren alde egin zuen eta Gonzague de Reynoldek, intelektuak katolikoa eta aristokratikoa berau, idatzi zuen liburu bilduma Europako eraketaz, *La Formation de l'Europe* (1944) 8 liburukitik 7 itzuli zituen gaztelaniara. Suizako federalismoan sakondu zuen eta gerra garaian, 1936-1937an Friburgon egon zen.

Francesc Pi i Maragal, Lehen Errepublika garaian Espainiako presidentea izan zena, federalismo simetrikoaren teorikoa izan zen. Horrez gain *Las Nacionalidades* liburua argitaratu zuen 1877an eta XIX mendean nazioari buruzko teoria garatu zuen. Liburu horretan, euskaldunei buruz, honako gogoeta hau argitaratu zuen:

“En España la cuestión de los vascos es mucho más grave que en Francia (...). Vencidos, se trata actualmente no de arrancarles sus fueros, pero sí de quitarles la exención del servicio militar y de los tributos. ¿Serán porque se los quiten más españoles? ¿Participarán más de nuestras ideas y de nuestros sentimientos? ¿No será resultado natural de la diversidad de razas ese antagonismo que entre ellos y nosotros existe? A poco que se combinen aquí los diversos criterios para la teoría de las nacionalidades, tengo para mí que se habría de estar por la independencia de los vascos. ¿La consentirá España?”¹⁶

Beraz Sabino Arana baino lehen euskal nazionalitateaz gogoetak egiten hasiak ziren batzuk eta 1864ko Bizkaiko Batzar Nagusietan ere euskararen aldeko katedra sustatzeko eskaria egin zen eta zera argudiatu zuten: hizkuntza

15. Larronde Jean Claude, *Histoire du VIIème Congrès d'Etudes Basques, Biarritz, 1948* in *VIIème Congrès d'Etudes Basques = Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua = VII Congreso de Estudios Vascos* (7. 1948. Biarritz). Donostia: Eusko Ikaskuntza Ikaskuntza, 2003. 37

16. Pi i Margall F. *Las nacionalidades*, (1877). Madrid: Centro de Estudios Constitucionales, 1986, orr. 62-63

eta nazionalitatea bat eginik zeudela eta beraz euskal hizkuntzaren alde egin behar zela.

Nazioen teoria Renanek eta Canovasek ere landu zuten.¹⁷ Eta mende amaieran Sabino Aranak bere era berezian, oinarri erlijioso eta ikuspegi integrista kontserbadoreetan oinarriturik bizkaitar eta euskal nazio ikuspegia landu eta aldarrikatu zuen. Nazionalitatearen printzipioa aplikatu zion Euskal Herriari eta beraz nazio izaeran oinarriturik aginte publikoaren berreskurape-na aldarrikatzen zuen. Baina teoriara ez zen mugatu, bereziki ekintza gizona bihurtu zen eta ondorioz Bilboaldeko panorama politikoa errotik eragin zuen. Liberalen baitan ere foruen bidezko erakundeak berreskuratzeko euskal nazioaren teoria bereganatzen hasi ziren eta 1896an jadanik Euskalduna izeneko kazetan Ramon de la Sotaren babespean Eduardo Landetak eta beste batzuk foruzaletasunean oinarriturik, euskal agintaritza publikoa aldarrikatu zuten. Beranduago, Euskal abertzaletasunaren ildoko ikuspegi liberal eta aurrerazalearen erakusle bihurtu ziren *Hermes* aldizkaria Jesus Sarriaren zuzendaritzapean eta zera aldarrikatzen zuen. " *El pueblo vasco, como el catalán, encontrará en la autonomía nacional descanso a su largo batallar (...) el pueblo vasco pide la autonomía nacional entera, la libertad para regirse internamente a sí mismo según su amplio espíritu social y jurídico*". (J. Hermes, 1918). *Hermes* aldizkariak, W.Wilsonen programa eta Estatu Batuetako presidentearen proposamenak zabaldu eta komentatu zituen. Euskal agintea berreskuratzea izan zuten helburu. Baina horrelakorik izan ezean, 1918an jadanik autonomia estatutua aldarrikatu zuten eta "Gobierno nacional vasco" delakoa, urte berean Ramon Belaustegigoitia egin bezala.¹⁸ *Hermes* aldizkarian euskal nazioaren inguruko aldarrikapenak burutu ziren eta autonomia hori euskal naziotasunean oinarrituriko eskubide gisa defendatzen zuten, J. Sarria aldizkariaren zuzendariak eta bere ingurukoek.¹⁹

Horrela Jose Miguel Azaola jaio zen urtean jadanik, 1917an euskal abertzaletasunaren aldarrikapena zutenak ez ziren aldarrikapen kulturean soilik ari, agintea lortzearen bila baizik. Hauteskundeak Bizkaian irabazi eta lehendabizikoz Diputazioaren presidentetza lortu zuen, Ramon de la Sota Aburtok. Aurrerantzean autonomia lortzea, agintaritza politikoa indartzea bihurtu zen helburu. Ondoren 1936an Eusko Jaurlaritza sortu zuten eta Euskal Herriko historia politikoan Eusko Jaurlaritzaren sorrera mugarrria gertatu zen eta ez behin behineko jazoera anekdotikoa. Ondoren erbestean egon arren, Eusko Jaurlaritzaren erreferentzia ezinbestekoa zen, irauten zuelako demokraziaren

17. Azurmendi Joxe, *Historia, arraza, nazioa* Donostia: Elkar, 2014.
Hizkuntza, Nazioa Estatu. Donostia: Elkar, 2017

18. Belaustegigoitia Ramón, *Las bases de un Gobierno nacional vasco*. Bilbao: Editorial Vasca, 1918

19. Agirreazkuenaga Joseba, *Hermes, hiria, gizona eta aldizkaria*. Bilbao, Bilboko Udala, 2000

isla bezala Pariseko hirian eta aldi berean Euskadiko autogobernuaren premia aldarrikatzeko ikurra zen.

Frankismoaren agindupean gertatzen ari zena Euskal Herrian ikuspegi orokorrago batetik aztertzen saiatu behar dugu, hau da, frankismoaren ondorioz erbestean bizi zirenen kezka eta egitasmoak ere gure kontakizun eta azterketaren baitan sartu behar dugu. J. A. Agirre lehendakariaren hiletara, 1960ko urtean jende ugari joan zen adibidez, hegoaldeak.

Beraz, Azaolaren esperientzia frankismoaren baitakoa izanik bere bizitzaren heldu aro osoan, idatzi zuen guztia, testuinguru librean Parisen idatzi zuen. Ez zen erbestekoa Eusko Jaurilaritzako kideak bezala, Francoren Espainian barrera ibiltzeko aukera zuelako arazo barik. Baina urruneko ikuspegia, Parisek sortarazten zuena mamitzeko aukera ere izan zuen. Horrez gain, bere ikuspegi europarra aintzat izanik, halaber beharrez gertatzen da hori. Horregatik bere lanen azterketak eta ebaluazioak, erbestean bizi ziren euskal herritarren iraganari buruzko kezka eta ikuspegiak aintzat hartzeraz behartzen gaitu, bereziki Jose Antonio Aguirre eta Ildefonso Gurrutxagarenak.²⁰

5. J.M. AZAOLAREN KEZKAK 1951EAN EUSKAL HERRIARI BURUZ

Donostian zegoela ekintzaile izan zen eta *Egan* (1948) aldizkari elebiduna, euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen erantzukizun osoa hartu zuen harik eta dimisioa eman arte, B. Oteroren poesia batzuen argitalpena zentsurak debekatu zituelako. Garai horretan Koldo Mitxelena eta beste pertsonak ezagutuko zituen, garaituen taldekoak izan zirenak eta Euskal Herriari buruz bestelako ikuspegi politikoa zutenak. Euskal Herria, uste baino konplexua zela jabeturik zegoen honezkero eta gerran batzuk garaileak izan arren, 1930eko egoera sozialak eta kulturak bere nolabaiteko jarraipena zuen.

Giro horretan 1951n *Arbor* aldizkarian artikulu jakingarria, lehen aipatu duguna, argitaratu zuen: "*Carta de las Regiones: Vasconia.*" Artikulu honetan ikuspegi sendo batzuk agiri dira jadanik, bere bizitzan barrena defendatuko zituenak: Euskal Herriaren azterketa abiatzerakoan denboran barrena, historian zehar arakatzen saiatuko da. Historikoki pentsatzeko ohitura eta metodologia landu zuen. Euskal Herriaren egituraketa soziala eta mesokraziaren garrantziaz ohartuko zen. Aurrezkiaren kulturaren oinarritzen den klase ertainetako balorea goratzen du. Euskal Herriak bere osotasunean ez du izan bateratasunik eta

20. Agirreazkuenaga Joseba "Reinterpreting the Basque Past in Exile : Scholars, Narratives and Agendas (1936-1977)" *Storia della Storiografia-Histoire de l'Historiographie-History of Historiography -Geschichte der Geschichtsschreibung*. N°69, 1. Pisa-Roma:Fabrizio Serra editore, 2016, 65-82

bestalde bertako buruzagiek kultur gaiak ez dituzte landu. Kulturgintzaz ari zelarik, goi mailakoa deiturikoa lehenetsiko zuen (antzerkia, opera, musika sinfonikoa, pintura eta abar). Euskaldunen ekarpenak Gaztela eta Espainiaren bidez edo, bere kasuan, Frantziaren bidez, izan dira ezagun historian barrena. Euskal hizkuntzaren garrantziaz jabeturik dago jadanik, frankismo garaiko lehen aldizkari elebidunaren arduradun izan zelarik. Azkenik kezka eta galdera ikur bi azaleratu zituen: Zergatik ez du Eusko Ikaskuntza moduko elkarte batek legezko jarraipenik izan frankismoaren giroan eta bigarrena unibertsitatearen sorrera ezinbesteko premia da Euskal Herriaren garapenerako. Gizarte garatu batean unibertsitatea premiazkoa da eta Euskal Herrian ere bai. Azken batean “Vasconia” Espainiako erregio bat izanik, bere nortasun berezitua bistakoa zela iruditzen zitzaion eta hori azpimarratzeko modu ahalik eta objetiboenean frogatzea zuen helburu.

6. ERREGIOAK BEREBIKIZIKO GARRANTZIA

Aipaturiko artikulua idatzi aurretik gogoan izango zituen, jakina, 1948an Biarritzen Eusko Ikaskuntzak antolatu zuen Eusko Ikaskuntzen VII Kongresua.²¹ Atzerrian antolatu zen Biltzarra baina bertara joan zirenak begirada Euskal Herri osoan zuten. Bestalde 1949an J. Caro Barojak Donostian liburu garrantzitsua argitaratu zuen, *Los Vascos* izenburupean. Azterketa sozio-kultural eta historikoa zen baina aldi berean politikoa ere. Azaola eta beste batzuk 1950eko hamarkadan, estatu totalitarioaren erakundeetan nabaria zen Euskal Herriaren ukazio edo negazionismoaren ikuspegia gainditu beharra zegoela, aurreikusten ari ziren. Ez agintariak, alegia.

J. M. Azaola Madrillera joan zen eta 1956an jadanik, diktadura frankistaren aurka unibertsitateko ikasleen mugimenduan abiatu ziren, diktadurak hain zuzen ere, nazioarteko begirunea eta onespina jaso izan zuen garaian, Nazio Batuetan onartua izan baitzen 1955eko abenduan.

1956ean ere, Agirre lehendakariaren eraginez, Parisen, lehenengo “Euskal Batzar Orokorra” deitu zen. Bertan Euskal Herriko iragana baina bereziki garaian garaiko egoera eta etorkizuna landu zen. Azkenik, Munichen 1962an, Europar Mugimenduaren IV. Biltzarra antolatu zen. Atzerrian zegoen Salvador Madariagak hartu zuen espainiarren delegazioaren ardura baina aldi berean delegazio horretan gehienak Francoren diktadurapean bizi zirenak ziren, 80 inguru eta guztiak bat eginik, hau da erbestean zeudenak eta Francoren diktaduran partaide eta kolaboratzaile izan zirenak baina ez zetozenak bat diktaduraren luzapenarekin, saiatu ziren etorkizunari begira behin behingo igarobide bat asmatzen. Esan beharra dago, biltzarrera ez zirela gonbidatuak izan komunis-

21. Larronde J. C., *VII Congrès d'études Basques...* Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2003.

tak, Alderdi Komunistako kideak. Europako askatasun demokratikoak hartzen ziren oinarri. Espainiako erregioen autonomiaren gaia ere atera zen. Bertan ziren euskal ordezkariak, alde batetik erbestekoak Irujo buru zirelarik. Bestalde, Hego Euskal Herrian bizi zirenak J. A. Ayestaran eta ELA sindikatuaren ingurukoak. Azkenean, etorkizuneko Espainian autogobernua herrirentzat modu lausotuan onartuko zela ebatzi zuten. Estatuaren egitura zentralizatzailea edo autonomietan banatua, eztabaidagai bihurtu zen ere München. Europar batasun ekonomikoa abian zen eta Espainiaren etorkizun ekonomikoa Europarren barruan zegoela, frankistak eta antifrankistak ikusten zuten. Bestalde, gerra zibila amaitzeko garaia heldu zela pentsatzen zuten bertara joan zirenak eta gerra amaitzen saiatu ziren. Baina diktaduraren amaiera eta trantsizioa has-teko saiakera hori, Francok erabat itxi egin zuen eta Espainiara Munichetik itzuli zirenak zigortu egin zituen. Delako bilkura, diktaduraren aldeko prentsak “konturbenio” kontzeptuaz deskalifikatu zuen.

Guzti horren berri izango zuen J. M. Azaolak eta Estatuaren etorkizuneko eraketaz izandako eztabaidaz ere bai. Ondoko urtean Parisera joan zen UNESCOra lanean eta Parisen idatzi zuen Vasconia y su destino. Garai berean, Bilbon 1971n hitzaldia egin zuen, Antropologiari buruzko bigarren astean. Besteak beste, Euskal Herriko historia berri baten premia aldarrikatu zuen eta euskararen etorkizunaz kezka adierazi.

7. VASCONIA Y SU DESTINO: LA REGIONALIZACIÓN DE ESPAÑA ETA LOS VASCOS, AYER Y HOY.

Euskal Herriari buruzko gogoeta osoa, integrala planteatzen du autoreak. Bilduma orokorra, alor guztietakoa eta prospektibaren ikuspegia agiri da, hau da etorkizuna aurreikusten saiatzen da eta beraz hartu beharreko erabakiak halabeharrezkotzat guztientzat erakutsi nahi ditu. 1959ko urteaz geroztik Euskal Herrian eta Espainian garapen ekonomikoaren planak indarrean jarri ziren eta sekulako hazkunde ekonomikoaren bidez sakoneko aldaketa ekonomikoa eta soziala gertatu zen. Plangintza horien eraginez, ekonomiaren erabateko liberalizazioa burutu zen eta teknokratak deitzen zirenak izan ziren egileak. Adituen eta teknokraten inperioa zetorrela zirudien eta ekonomiak eten bako gorakada egingo zuela eta demografiak ere. Horrela 2000 urteko Bizkaia aurreikusten zen merkatal ganbarako azterketetan eta populazioa lantegien artean bizi ezinik egongo zela. Ingurugiroaz kezka agiri da. Baina plangintzak aginte zentralak erabaki zituen. Eta giro horretan lehen liburukian Espainiaren erregionalizazioaz ari da. Berez Revista de Occidente izeneko argitaletxean argitaratzeak liberalismo politikoaren giroan burutzen zela adierazten du, diktadurako agintarien onespenez jakina. 1960ko hamarkadan liberalismo ekonomikoa aldarrikatu zen baina diktadurak ez zuen liberalismo politikorik onartzen.

Liburuaren sarreran argi eta garbi eta diktaduraren garaian idatzita zegoela aintzat harturik, Pariseko ikusmiratik, salaketa egiten du. Euskaldunek ez dute ia tresnarik bertako arazo publikoak erabakitzeke:

*“La pequeñez de los instrumentos de que los vascos disponemos para resolverlas” “me refiero a los instrumentos institucionales, politicoadministrativos, que son esenciales e imprescindibles, aun cuando no sean los únicos (...) autoridades regionales representativas dotadas de los medios financieros, de las competencias jurídicas y de la capacidad de decisión ejecutiva”.*²²

Sakoneko arazoetaz egin behar zen gogoeta: 1970 urte bitartean hego Euskal Herrian hazkunde demografikoa %157koa izan zen. XX mendean eta bestalde Euskal Herriaren zabalera fisikoa mugatua izanik, bazirudien arazo larria gertatuko zela horrelako hazkunde demografiko eta ingurunearen mugatasun fisikoaren artean. Arazo hau behin eta sarriago aipatzen da liburu guztian. Ondoren erregioen fenomeno bai Europan eta Espainian duen garrantzia azpimarratu zuen eta Espainiako erregionalizatorako egitasmoak, ekonomisten artean eta bestelakoak. Bere ustez, erregioa Euskal Herriko lau herrialdez osaturik beharko luke izan baina agian Logroño ere gehiturik. Baina garaiko ekonomisten azterketetan Nafarroa Zaragozarekin ageri zen loturik.

Beraz, nola definitu erregioak? Zeintzuk ziren irizpideak? Galderari erantzuteko atal berezia eta interesgarria idatzi zuen ondoko izenburuaz: “Tecnocracia, historiocracia y democracia”. Irizpide tekniko, historiko edo demokratiko definitu ahal zirela erregioen mugak adierazten du baina azken batean guztien artean ikuspegi demokratikoaren alde egiten du. Azken batean erabaki politikoa delako erregioko muga egonkortzea. Diktaduraren garaian ere demokraziaz hitz egiten zen baina delako demokrazia organikoa behar zuela adierazten ze, hau da, errepresentazioa familia eta erakunde bidez adierazten zen, ez ordea pertsona bakoitzaren askatasun indibidualen bidez. Askatasun eskubi-deen bermerik ez zegoen diktadura garaian. Horra Europako liberalismo demokratikoarekiko desberdintasuna, frankismoak ez zuena onartzen. Baina Azaolaren ikuspegian, Parisetik idazten ari zelarik, demokrazia liberala askatasun indibidualean oinarriturik behar zuela zirudien. Hautesle bakoitzaren askatasunean antolaturikoak ziren, azken hauteskunde baliagarritzat hartzen dituenak.

Kritikatzen ditu autonomi estatutu berezien bidezko erregionalizazioaren erakundetzea, Espainia eta delako estatutu erregionalen artean tirabirak sortuko zirelako, erregionalizazio asimetrikoaren eraginez. Horregatik bere ustez, erregionalizazio simetrikoa eta Espainia osorako zabaltzearen aldeko zen, autogobernurako kontzientzia nabarmenik hainbat lurraldetan izan ala ez izan.

22. Azaola J.M., *Vasconia y su destino...*1972, 21

Laburbilduz, oinarri objektiboetan finkaturik, gizarteko premiak betetzeko, garapen ekonomikorako bidea sustatzeko, erregionalismoaren premia aldarrikatu zuen. Teknokraziaren gorazarrea egiten zen garaian eta giroan idatzita dago, berez politika eta politikarien aurkako giroa zen frankismoak bultzatzen zuena. Francoren ahoan jartzen da esaldia, *“haga como yo, no se meta en política”*. Administrazio publikoaren kudeaketa teknikarien arazoa zen eta frankisten buruzagien artean ideologiaren amaiera iritsi zela azaltzen eta aldarrikatzen zen. Herriaren ongizatea zen helburu eta bitartekoak ez ziren garrantzitsuak, bitartekoen instrumentazio oro ondo hartua zen helburua lortu ezker, eta giro horretan diktaduraren jarraipenerako justifikazioa zabaltzen zen, egitura tekniko bezala azalduaz. Testuinguru horretan liburuak halabeharrez objetibotasun edo irizpide ekonomiko sozialetan oinarritzen saiatu zen eta erregionalismoa arazo politiko ez ezik, bitarteko tresna tekniko bezala defendatuko zuen bere liburuan J. M. Azaolak. Prospektibaren ikuspegia ere bereganatzen du, *Bilboko Merkataritza Ganberan* Dorao Lanzagortaren bidez lantzen ziren ikerketak oinarri eta abiapuntutzat hartu zituen.²³

7.1 Los Vascos ayer y hoy

6 urte beranduago, 1976an argitaratu zituen bi liburuki gehiago eta tituluak agiri da, euskaldunak izango direla protagonistak, iraganekoak eta 1976koak. Francoren heriotzaren ondoren, diktadura garaian antolatu zen erakundetze juridiko politikoa bere horretan indarrean jarraitzen zuen baina eztabaida publikoan askatasun indibidualen aldarrikapena gero eta ozenagoa zen. Liberalismo politikoaren premia mendebaldeko Europaren demokrazia ispilu zelarik.

Indar demokratikoak haustura aldarrikatzen zuten bitartean, frankismoaren ildokoak, erreformaren alde zeuden, erreforma horren baitan gradienteak ugariak zirela, berehala burutu beharreko erreforma batzuen ustez, epe ertain eta luze batean beste batzuk. Bizkaian eta Gipuzkoan Diputazioaren inguruan erakundetze administratibo berezia, hau da kontzertu ekonomiko-administratiboaren antzeko zerbait sortzeko, adituen eta frankismoko erakundeetako ordezkari osotarik batzordeak antolatu ziren. Araba eta Nafarroan moduko kontzertu ekonomiko-administratiboaren berreskuratzea zuten jomuga. J. M. Azaolak aholkulari moduan parte hartu zuen Bizkaiko batzordean Adrian Celayarekin batera.

Giro horretan argitaratu ziren bi liburukiak eta J.M. Azaolaren helburua badiurudi zela, Euskal Herriari buruz eta bereziki hego Euskal Herriaz joera politiko desberdinen arteko bateratasun bat sortzea. Ideologiaz gain, mentalitate edo Euskal Herriari buruzko interpretazioetan oinarritzko ezagutza komuna adieraz-

23. Dorao Jesús, *Análisis de la economía Vizcaína y su proyección* (1968 – 1979). Bilbao: Cámara de Comercio de Bilbao, 1968, 5 liburuki

tea eta adostea zuela helburu dirudi. Azken batean espirtu liberalaren bidez, desberdinen arteko lankidetzaz ahalbideratzeko ahalegina. Bere abiapuntua ere argia da, garai bateko monarkiko liberalen ildotik, espainiar naziotasun bakarreko diskurtsoan oinarriturik baina nazio horretan erregionalismoa eta deszentralizazioaren alde. Baina Euskal Herriko eredu ekonomiko soziala gainbeheran baitzihuan eta larrialdiak arlo guztietan agiri ziren.

Bi liburuki hauek Euskal Herriari buruzko entziklopedia baten erara antolatutik daude. Bernardo Estornes Lasaren zuzendaritzapean Auñamendi argitaletxeak Euskal Herriko hiztegi entziklopedikoa burutzen ari zen. Aldi berean 1975ean Iñaki Larrañagak Siadeco enpresaren izenean Euskaltzaindiari proposatu zion euskararen inguruko azterketa burutzea eta hortik *Liburu zuria* argitaratu zen 1977an, euskararen iraganari buruz autore desberdinek ekarpenak egin zituzten.²⁴ Giro horretan J. M. Azaolaren liburua beste ekarpen jakingarria dugu eta zera azpimarratuko nuke: Alde batetik Euskal Herriaren iraganari buruz eta Euskal Herriaren lurraldetasunaz zein nortasunaz burutu zuen ikuspegia. Bestetik herrialdez herrialde, iparraldea barne egiten duen garaian garaiko egoeraren azterketa, oinarrizko ezagutzak sistematizatuz. Azkenik garaiko egoera politikoaz gogoeta egiten du. Ipar Euskal Herriarekiko interes izugarria agiri du liburua.

Nire ustez ekarpen nabarmenena 1976ko edizioan, lehen liburukian egiten duen laburpenean dugu, bereziki izena eta errealitatea, *“el nombre y la realidad”* atalean. Ondoren euskaldunen historiaz egiten zuen interpretazioa saiakera estiloan burutzen du, nolabait euskaldunen kontakizunaren ardatzak asmatu nahian. Bi arlo hauek komentatuko ditugu ondoko atalean.

8. VASCONIAREN HISTORIAZ

Erromatarren garaiko izena dugu Vasconia. Estrabonek herriak aipatzen ditu, besteak beste, *Vascones* eta herri horren lurraldea Vasconia litzateke. Bere ustez izenik jatorrena litzateke. Erromantzeak ere latinetik Euskal Herrian sorturiko hizkuntzak zirenez gero, azken batean Vasconia deritzo egokiena neologismoetan sartu gabe. Euskal Herria aldiz euskaldun edo euskal hiztunen herrira mugatzen du baina ez du azaltzen zergatik euskal hiztunentzat Vasconia lehenetsi behar ote den Euskal Herriaren ordez.

Euskal Herria esaten denean, euskaraz, herri, populazioa eta espazioa ere adierazten du. Euskaraz bietarako erabili ohi da. Horregatik, K. Mitxelenak adierazi bezala, Euskal Herriaren itzulpen zuzenena gazteleraz Vasconia litzateke eta alderantziz. Biak dira izenik tradizionalenak euskaldunen lurraldea

24. *Euskararen liburu zuria*. Bilbao: Euskaltzaindia, 1977

definitzerakoan.²⁵

W. Humboldt Euskal Herrian barrena 1801ean, bigarren ez egon ondoren, euskalduneri buruzko liburua idatzi zuen eta euskaldunek erromantze hizkuntzetan hatzen zuten izenen desberdintasunaz harritu egin zen. Euskaldunen lurraldeak ez zuten izen komunik eta horregatik berak ere euskalduneri buruz prestatu zuen izkribuan, lurraldearen izena erabili beharrean, jendearena hartu zuen, euskaldunak.²⁶

8.1. Noiztik euskaldunen kontakizuna?

Erromatarren inperioa desegin ondorengo egoeran baskoiak edo euskaldunak nabarmenago ageri ziren eta Wasconia izenekoa lurraldea ere. Baina nortasun politikoz erakundeturik eta kontakizun historiko baterako 1035ean jartzen du oinarri eta abiapuntua garai horretan Nafarroan egituratze politiko eta agintaritza nabarmena izan zelako eta Antso (III) Nagusitik, Antso VIIra, (1234). Euskal Herriko erakundetze politikoaren eta euskaldunen nortasunezko erresuma agiri zen. Arturo Campionen ikuspegiaren eragina nabaria dugu honetan. Euskal Herriko iraganak historiaren bidezko, zientzia historikoen bidezko historia bat behar zuen eta abiapuntua Iruñerriko erresuma edo agintearen eraketan ezarri zuen.

Aintzat hartzekoa dugu erbestean Jose Antonio Agirrek Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Euskal Herriko historia nazional berritzailea idatzi nahi zuela. 1948an Agirre berak Biarritzeko Eusko Ikaskuntzaren VII Kongresuan aurkeztu zuen bere ekarpena.²⁷ Historia politikoa burutu nahi zuen, euskaldunen kontakizun politikoa eta euskaldunak gai izan zirela erakunde politiko burujabeak sortzeko. Agirrek, Ildefonso Gurrutxagaren laguntza izan zuen eta Euskal Herriko kontakizun politikoaren hasiera, Antso Nagusiarekin ere abiatzen zela aldarrikatzen zuen.

Horra, bada, bi ikuspegi politiko desberdin eta kontrajarririk abiatuz, euskaldunen historia politikoa birpentsatzerakoan, Arturo Campionen ikuspegi oinarriturik, ikuspegi komuna bateratua burutu zuten.

Bere sarreran euskaldunen kontakizunari buruz, bi ikuspegi kritikatzan ditu: Alde batetik gaur egungo euskaldunen jatorria eta kontakizuna paleo-

25. Mitxelena Koldo, "Los vascos y su nombre". Revista Internacional de Estudios Vascos. (29). Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1984, p. 9-29

26. Humboldt W. "Los Vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el país vasco en primavera del año 1801" Telesforo Aranzadiren itzulpena, in, *Guillermo de Humboldt y el País Vasco*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1925, 113 orr.

27. J. A. Aguirre, "La influencia de la política internacional, la corrupción política en la desmembración vasca del siglo XIII" *VII Congrès d'Études Basques, 1948*, ed. J. C. Larronde, Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2003)

litikotik egiten dutenena, lotura bat eginez gaurko euskaldunekin, bitartean gertaturikoa gutxietsiz. Beste batetik, uka ezineko errealtatea da Euskal Herriarena, “pueblo vasco” delakoa. Euskal Herriaz eta euskaldunetaz historia eta iraganaren kontakizuna burutzea ez da bere ustez, Sabino Arana eta euskal nazionalisten asmakizuna. Euskal Herria bere horretan, beraz ezin da asmakizun soila balitz bezala hartu.

Bi ikuspegiak, paleolitikoa eta nihilitikoa, hau da negazionista, okerrak di-rela adierazten du: Sabino Arana aurretik ere Euskal Herriari buruzko ikuspegia eta kontzientzia euskalduna, herri edo talde batena egon bazegoela adierazten du. Baina jakin behar dena da noiztik? Eta horretan Nafarroaren erakundetze politikoa ezartzen du argi eta garbi abiapuntua.

Espaziori dagokionez ere, euskaldunen eraginezko lurraldeak zabalak izan ziren iraganean baina aldi historikoan, duela 1000 urtetik, Euskal Herria edo Vasconiaren lurraldea, zazpi herrialdeetara mugatzen dela adierazten du. Adirazpen honen bidez Oihenarten Vasconiaren lurraldearekiko edo eta Federico Krutwiggek bere Vasconia liburuan, 1963an adierazten duen lurralde eremuarekiko desberdintasuna ageri du. Guzti hori adierazi ondoren bere ikuspegiaren arabera : “*Hay que negarse a subordinar a los intereses políticos, presentes o futuros la ciencia del pasado, la ciencia del derecho y cualquier otra clase de ciencia*”.²⁸

Hala ere anakronismoak ere bere testuan aurkitzen dira. Batzar nagusietaz ari denean adierazten du, que las “*Juntas eran bastante democráticas*”²⁹ Batzar Nagusiak ez ziren demokratikoak, kontzeptua bera ere ezinezkoa zelako, gaur egun demokratikoz ulertzen dugunaren arabera. Esan beharra dago, Batzar Nagusiak ordezkari osatzen zirela eta beraz, gizartearen nolabaiteko errepresentazioa erakusten zutela, garaian garaikoa, erabat nabarmena. Komunitatearen ordezkari maila bat erakusten eta islatzen zuten Batzar Nagusiak, baina Batzar Nagusien ordezkari horrek ere salbuespen eta berezitasun ugari zituzten. Hala ere kultura errepublikano europearraren erakusle bai ziren, Lege Zaharreko Batzar estamentalekin parekatuz gero. Adibidez, Nafarroako Gorteak berriz, Europako beste era berdineko erakundeen antzera, hiru besoetan banaturik zeuden, nobledunak eta armadaren nagusi zirenak, eliztarrak eta hirugarren mailakoak.

Jakobinismoak, Batzar guztiak berdinak zirelakoan zeuden, guztiak ziren feudalismoaz kutsaturik eta pribilegioan oinarritzen ziren heinean desegin behar ziren. Eta horrela gertatu zen Lege Zaharraren amaiera Frantzian. Baina autonomia kontzeptua ere XVIII mendean ezin dugu erabili. Agian egokiagoa da autogobernuaren edo burujabetzarena.

28. Azaola J.M. *Vasconia*.... 1976, 246 orrialdea

29. *Ibidem*, 247 orr.

Historiografian beste gai nagusi bat da, 1839ko urriaren 25eko legea. Modu zuzenean iruditzen zait egiten duela azterketa, azpimarratuz, 1837an Espainiako Parlamentuak lehenago foruen bidezko erakunde guztiak ezabatu egin zituela eta 1839eko legearen bidez indarrean jarri ondoren, parlamentu espainiarraren agindupean. Hori bai, aurrerantzean, Espainiako parlamentua izango zen euskal legediaren mugak ezarriko zituenak, baina autogobernuak jarraitu egin zuen batzar nagusien bidez foruzaletasun liberalaren sorrera eta bilakaera hasi zelarik. Foruzaletasuna mugaturik baina bilakaeran hasi zen.

Nafarroako bilakaera azaltzerakoan Del Burgoren tesian oinarritzen da erabat. Ez du aintzat hartzen negoziazio fiskala izan zela tarteko: Nafarroako zor publikoa Espainiak hartu zuen bere gain eta Erresumarekiko “diru-ekarpen” edo aportazioaren ordaina, Nafarroako zor publikoak eragiten zituen interesak ordaintzeko erabiliko zen aurrerantzean. Beraz negoziazio ekonomikoa ezin hobea errentisten interesak gordetzeko. Baina, trukean, Nafarroa, erresuma izatetik, probintzia izatera igaro zen, hau da Espainia liberalaren interbenzioaren ondorioz, erresumaren bidezko botere politikoa galtzen zuen.

XX. mendearen historia ere egiten du baina Eusko Jaurlaritzaren sorrerak izan zuen garrantziaz ez du nire ustez hain balorazio objektiboa. Badirudi, Eusko Jaurlaritza mitologia nazionalista baten ekimena soil-soilik izan zela eta beraz euskal nazionalismoaren sustapen soila izan zuela. Eta ez zen horrela izan. Askatasuna eta liberalismoaren aurkako kolpismo militarra sustatu zutenek ez zuten parte hartu Eusko Jaurlaritzan, bai ordea bestelako indar politiko guztiek. Atal honetan, berezko Azaolaren ahalegin objektiboa ez da hain neutrala. Bere esperientzia, monarkismo liberalaren baitan kokatzen zen eta jakinekoa da sektore ugari ez guztiak golpe militarra prestatzen lagundu zutela Neguri eta Bilbon, Javier Ybarra Bergek kontaktzen duenez gero.

Baina bestalde, Azaola bai konturatzen da eta azpimarratzen du etorkizunari begira Eusko Jaurlaritzaren sorrerak izugarritzko gertaera politikoa bihurtu zela. Mito berri bat sortu zen eta mito eragilea izan zen. Bere ustez, foruzaletasunaren bidez berreskuratu behar ziren aginteak eta horretarako ez zen asmatu beharrik Eusko Jaurlaritzarik. Honen sorreran, euskal ikuspegi nazionala agiri zen nabarmen eta horrelakorik berak ez zuen onartzen. Eusko Jaurlaritzaren egituraketa berrian, autonomia soilik izan arren, foruen bidezko tradizioarekiko etena zegoen.

Gogoratu behar dugu bestalde, 1933eko erreferendumnean, monarkiko liberal eta kontserbadoreak ere “*Fueros sí, Estatuto no*” goibururekin bat egin zutela. Francoren garaipenak Estatutua ezabatu zuen eta foruen inguruko erretorika bat indartu zuen baina sekula indarrean izan den zentralismo bortitzena eta antzuenaren eratu zuen, *Fueros sí* delakoaren aitzakian.

9. LIBURUAREN BESTE ATALAK ETA EKARPENAK.

Autogobernua eta aginteak euskaldunek behar zituztela etorkizuna planifikatzeko, aldarrikatu zuen eta gaia bera berriz ere plaza publikoan adierazteak, berritasuna ekarri eta sortarazi zuen. Euskal Herriko bibliografian ez ziren ugari horrelako gogoetak eta ekarpen moduan hartu behar dugu. Bestalde, liburuak beste helburu politikoa ere bazuen: Autonomiaren bandera ez zen euskal abertzaleen eskaera moduan hartu behar. Espainiar abertzale ziren euskal herritarrek ere bere helburu bihurtu behar zutela aldarrikatzen zuen. Eta hauxe genuke liburuaren tesis zentrala eta nagusia.

Espainiar naziotasunetik abiatuz, lurraldeen erregionalizazioa aldarrikatzen zuen, botere publikoa deszentralizatu behar zen eta guzti hau eskatzea ez zen espainiar naziotasunaren ukazioan finkatzen, espainiar naziotasunaren oinarri eta sendotzearen alde egiten zuela baizik, frogatzen saiatu zen. Horregatik, bai foruzaletasunaren bandera zein autogobernuarena, euskal nazionalismoari kendu behar zitzaiola adierazten zuen liburuak.

Liburua politika ekonomikoaren ikuspegitik abiatzen da eta zeintzuk ziren etorkizuneko arazoak seinalatzen saiatu zen, euskaldunen bizitza kolektiboa eratzeko: hirigintza eta ingurugiroa, demografia, politika ekonomikoa, azpiegiturak, komunikabideak, hezkuntza eta osasun zerbitzuk eta kulturgintza. Ekonomiari dagokionez liberalismo ekonomikoaren aldekoa zen. “*Falta en España el instrumento regional eficaz y moderno,*” esan ondoren, Euskal Herriak bere destinoa Espainiaren baitan zuen eta ondoren Europan bere nortasuna adierazteko gaitasuna lortuko luke. Destinoaren kontzeptua frankismo garaiko erretorikan behin baino sarriago aipatzen zen. Historiaren ikuspegi lineala aurreikusten du, hasiera eta amaiera baten arabera eta destinoaren fatalismoa dirudi dela giza komunitateen halabeharrezko jomuga, aurretik idatzita balego bezala. “Destinoa” kontzeptua demokraziaren aurkakoa bihurtu daiteke. Demokrazian, *demos* edo herritarrek erabakitzen dute uneoro zer egin eta norantz begiratu, baina aurretik destinoa jarri ezker, badirudi gizatiarren gainetik zerbait gain determinatua dagoela. Liberalismo demokratikoaren baitan destino kontzeptuaren erabilpena eta esangura trakets bihurtzen da.

9.1. 1988ko El Pais Vasco

Euskal Herriari buruzko ondoko liburua hamar urteren buruan idatzi zuen, saiakera estiloan berriz ere. Euskaldunen herrialdea honako honetan *país* bezala definitzen du. 1978an Espainiak konstituzio politiko berria zuen. Frankismoak militarren indarrez ezarritako erakundetzetik abiatuz burutu zen erreforma eta azkenik konstituzio berri bat. 1976ko saiakera horrelakorik ez zen aurreikusten. Gogoratu behar dugu München 1962an bildu ziren erbestealdiak bizi ziren espainiarrak Francok sorturik estatu erakundea totalitarismoaren eredutzat definitzen zutela.

Baina igarobide demokratikoaren bidean, Mendebaldeko Euskal Herrian autonomia estatutua bozkatu eta indarrean jarri zen. Lehendabizikoz historian Eusko Legebiltzar modernoa antolatu zen eta bertan Eusko Jaurlaritza aukeratu zen da. Nazio baten itxura berriz ere hartzen zuen mendebaldeko euskaldunen herrialdeak. Euskal nazio modernoaren egitura zuen. Aldi berean berriz, Nafarroan, 1841ean, Espainiako Parlamentuak legea onartu zuen eta Nafarroak, erresumako erakundetzetik probintzia izatera igaro zen, hori bai probintzia berezia, sistema fiskala eta administratiboa. Eta 1979an, Nafarroako Parlametua aukeratu zen eta 1841eko legearen erreforma burutu eta 1982an lege berri baten bidez Nafarroako Foru Komunitatea erakundetu zen. Baina nafar herritar modernoek ez zuten aukerarik izan erreferendum batean Nafarroako parlamentuko gehiengoak erabaki zuen bidea baieztatzeko. Printzipio demokratikoa ez zen bete. Eta 1976an J. M. Azaolak kritikatzan zuen historiakrazia- ren eraginpean, delako erreforma indarrean jarri zen.

Liburu horretan J. M. Azaolak autogobernurako aginteak lortzeko, Nafarroako ibilbidea foruzaletasunetik abitu zena lehenesten du, Estatutukoaren orde. Euskal Estatutuan euskal nazionalitatearen aipamen zehatza dago autogobernurako eskubide sorburu bezala aipatuaz.

1977ko ekaineko hauteskundeak baino lehen, 1977ko otsailean, frankismoaren legedian oinarriturik Martin Villak agindu baten bidez Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak indarrean jarri zituen. Bazirudien, foruak indarrean jarri nahi zirela hortik autonomia foruzale baterantz abiatzeko. Egitasmoa zaharra zen eta eskumaren betidaniko egitasmoa zen. Baina eskumak proposatzen zuen foruen bidezko aukera hori 1977ko ekaineko hauteskundeen ostean, indargabeturik gertatu zen, neurri batean. EAJren bidez, foruzaletasuna berriz azalduko zen, hori bai, printzipio demokratikoetatik abiatuz.

Estatutuaren iturria eta legitimitatea biztanleriaren borondatean oinarriturik dago, garaian garaiko pertsonen eskubide demokratikoetan du abiapuntua. Dena dela, finantziazio publikoa eta zergen kudeaketa lurralde historikoen esku gelditzen zenez gero, foruzaletasunaren iturburu juridikoan oinarriturik, Estatutua eta bereziki lurralde historikoen legediaren bidez, berri foruzaletasunez kutsatu zen.

Azaolak liburuan azaltzen du, berandu baino lehen Eusko Jaurlaritza, foruzaletasunaren ildoan hasiko zela laster batean. Eta horretan bai igarri zuen J. M. Azolak, oraintsu Iñigo Urkullu lehendakariak “*nazio foral*” delakoaren asmakizuna eta proposamena egin ondoren. Espainian egokitzeko eta txertatzeko foruzaletasuna heldu lekutzat hartzen da, aginteen esparrua zabaltzeko asmoz. Foruen aginteen garaiak nazioa espainiarra zela bakarrik azaltzen zen baina orain Espainia nazio anitza aldarrikatzen da alde batetik eta bestetik foruen bidezko oinarrietan sustapen juridikoz jantzi nahi da. Azken batean, kontzeptuak bere horretan garrantzitsuak dira baina hitzen eta kontzeptuen az-

pian gordetzen den esanahia dugu garrantzitsu. Abertzaletasun eta nazionalismo kontzeptuaren arteko diferentziak eta abar eztabaidatzen zen unean hara Emile Durkheimnek idatzi zuena: “*Ce qui importe, ce n’est pas de distinguer les mots, c’est d’arriver à distinguer les choses qui son recouvertes par les mots*”³⁰

Beste horrenbeste XXI mendean, azken batean Euskal Herriko bizitza kolektiboa bideratzeko gaitasuna dago jokoan, hau da, Eusko Legebiltzar eta Nafarroako Parlamentuan hartutako ebazpen eta erabakietan datza agintaritzaren giltza.

Bukatzeko, liburu hau, 1976an askatasunaren giro edo egardia batean burutu eta argitaratu zen Madrillen, nahiz eta oraindik frankismoaren legediak indarrean iraun. 1988an jadanik bazegoen egon aukera aztertzeke eta baloratzeke politikoki frankismoaren izaera totalitaria. Ikuspegi liberaletik begiraturaz behintzat. Baina J. M. Azaolaren liburuan ez dago azterketarik ez baloraziorik frankismoaz. 1937tik 1978 arteko erakundetze politiko administratiboari buruz ez da deus ere esaten, zentralismo politiko eta administratiboa kritikaturaz aparte. Frankismoaren garaiaz, hazkunde ekonomikoa soilik aztertzen da. Bai kritikatzeko zentralismoa. Baina ez erakundetzearen izaera totalitaria. Frankismoan badirudi bakarrik gertatu zirela aldaketa ekonomiko eta sozial sakonak, baina ALEA talde literarioa Bilbon berregituratu zen unean, errepresio eta fusilamentuak gertatzen ari ziren ere. 1940ko errepresio gogorra, fusilamentuak, erbestean bizi beharra askorentzat eta askatasun indibidualen eta askatasunen berme eza ez da aipatzen. Hutsune larria agiri da liburuan atal honetaz. 1948ko Eusko Ikaskuntzen Kongresuaren esperientzia, erbestean, bertatik bertara ezagutu zuen. Areago oraindik, liburuaren bukaeran euskal nazionalismoaren joera batzuk totalitarismorantz abiatzeko arriskuaz ohartzen gaituenean, ez dago ez pentsatzen nazionalismo espainiolararen kasuan, beste nazionalismo batzuetan baizik.

Frankismo garaian, monarkismo liberaletik zetozenak, 1919an sortu zen Liga Monarkikoaren ondokoak, bi diktadura militarren alde agiri zirela aipatu beharra dago. Bere liberalismo espainiarra militarren babespean gordetzen zela zirudien, Primo de Riveraren alde eta ondoren Francoren alde azaldu zirelako. 1957an Rafael Sanchez Mazasek argitaratu zuen saiakeran.³¹ Liburuan ederki idatzita hori bai, eta gustu handiz irakurtzeko, iraganeko Bilboko bizitza zibilaren gorazarre egiten du baina XX. mendean bizitza zibil horretan betidaniko buruzagien gidaritza gordetzeko, militarren indarra babesleku zutela ez du aipatzen. Paradoxa eta inpostura liberalaren adibiderik garbiena dugu 1957an

30. Durkheim (Emile), « Débat sur le nationalisme et le patriotisme » (1905), in *Textes* vol.3, Paris: Minuit, 1975, p. 179.

31. Sanchez Rafael, “Apología de la historia civil de Bilbao” in *Un siglo en la vida del Banco de Bilbao. Primer centenario (1857-1957)*. Bilbao: 1957. Manuel Aznarren gidaritzapean argitaratua izan zen.

Banco de Bilbaoren mendeurrenean argitaratu zuena.

Horregatik, frankismoaz halabeharrez idatzi behar dugu eta hasieran aipatu dudana errepikatuz, erbestean bizi zirenak ere aintzat hartuaz. 1976an, ezinezkoa zen hori baina bai ordea 1988an hain ikuspegi liberal eta zabala zuen europear mentalitateko batentzat.

10. LABURBILDUZ

Ekarpen handiko saiakerak dira, J. M. Azaolarenak, monarkismo liberaletik abiatzen zen intelektual baten gogoetak direlako eta bere inguruko arteen gogoeta berezitat hartu behar dira. Berez badirudi bere inguruko tradizio politikoarentzat idatzitako liburua dela, adierazteko, erregionalismoa eta autonomiaren bidezko autogobernua, egokiak eta positiboak direla gizartearentzat. 1919tik liberal monarkikoak autonomia politikoaren aurka azaldu ziren Gregorio Balpardaren ildoari jarraituz. Bere subjektibitatea ezkututzen saiatzen da lehen liburukietan ez horrenbeste 1988an idatzitakoan. Azaolak eztabaida publikoan eragile izateko idatzi zituen bere liburuak eta euskal herritar liberalen kultura politikoa berrizatzeko asmoz burutuak dira bere argitalpenak.

Eusko Ikaskuntzak Euskal Herriari buruz sortu zuen kultura komun horren baitan kokatzen du bere burua eta abertzaletasun bikoitzaren aldeko joera du, espainiarra eta euskal herritarra, uztartuz, XIX mendean barrena adierazi bezala, foruzaletasunaren bidezko erakundetzearen alde zegoelarik. Foruzaleatasunak bere muinean ahalbideratzen zuen abertzaletasun bikoitzaren izaera eta bidea. Horixe dugu bere ondorio politikoa.

Julio Caro Barojak ere 1971ean, *Los Vascos* liburuaren hirugarren edizioan liberalizat azaltzen du bere burua. Ikerketa batean oinarrituriko liburu historiografiko eta antropologikoa dugu Euskal Herriko historia ulertzeko eta interpretatzeko egina. Th. Lefebvrek aldiz, bestelako joera hartzen du inguru fisiko materialaren azterketan bere jomuga jartzen duelarik nagusiki *Les modes de vie dans les Pyrenees orientales*. Azkenik, F. Krutwigek 1963an *Vasconia* argitaratu zuen, ikuspegi historikoak agiri ditu baina helburu politiko jakin baten zerbitzuan pentsaturik, laster batean “eta” erakundean eragin izango zuelarik. Bernardo Estornesen Auñamendi entziklopedian, Eusko ikaskuntzako ildoko Euskal Herria irudikaturik dago eta historiari buruzko hainbat sarrera daude eta era kolektiboan burutu zen. Azkenik, ikerketa eta saiakera guzti hauek elkarren artean parekatu eta aztertze gaia eta ibilbidea erakusten dute.

Guztietan iraganari buruz ikuspegiak daude, historia burutzeko joera desberdina eta Euskal Herriari buruz korpus enpiriko desberdina. Etorkizunari begira beste ikerketa baterako gaia irekirik dago.

